BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4110

AGINDUA, 2012ko ekainaren 6koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Ivon Lecue Oleagordiak Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 16ko Ebazpenaren aurka jarritako gorako errekurtsoa ebazten duena.

Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 16ko Ebazpenaren bidez, ingurumen-inpaktuko adierazpena egin eta ingurumen-baimen integratua eman zitzaion basoko biomasaren errekuntzaren bidez energia elektrikoa sortzeko Bioforest Bost, S.L.U. sozietateak Errigoitin sustatu duen proiektuari.

2012ko urtarrilaten 16an, Ivon Lecue Oleagordiak 2011ko abenduaren 16ko Ebazpenaren aurkako gorako errekurtsoa jarri zuen.

Aipatutako gorako errekurtsoaren bidez, errekurritako ebazpenaren deuseztasuna edo deuseztagarritasuna adierazteko eskatzen da, ondoren, laburbilduta jasotzen diren kontsiderazioetan oinarrituta:

● Ingurumen-inpaktuko adierazpena emateko organo eskudunak ez du eman prozedurari amaiera ematen dion ebazpena legezko hamar hilabeteren epean, eta, beraz, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako suposizioa ematen denez, Bioforest Bost, S.L.U.k ingurumen-inpaktuko adierazpena lortzeko 2008ko abenduaren 30ean aurkeztutako eskaria ezetsi egin dela uler daiteke. Beraz, errekurritutako ebazpenak ez du betetzen artikulu horretan ezarritakoa, eta aipatutako legearen zioen azalpeneko 5. puntuko 5. paragrafoan ezarritakoa urratzen du. Prozeduran zehar organo eskudunak maiz eskatu dizkio informazio osagarria eta azalpenak sustatzaileari, Ingurumeneko Baimen Bateratua emateko. Horrek erakusten du gutxiegi eta kalitate eskasekoak izan direla prozeduran sustatzaileak aurkeztutako agiri teknikoak. Hori dela eta, organo eskudunak hainbat aldiz eman dio zuzentzeko aukera eskatzaileari, behar bezala justifikatu ez dituen agiriak zuzen ditzan.

● Errekurritutako ebazpenak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22.1.e) artikulua urratzen du, instalazioa diseinatzeko eta funtzionamenduan jartzeko baldintzekin batera bibrazioei buruzko baldintzak ez dituelako jasotzen, eta, ondorioz, ezta igorpen horiek neurtzeko metodologia, igorpenen maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak zehazten dituzten igorpenak tratatu eta kontrolatzeko sistema eta prozedurarik ere.

● Errekurritutako ebazpenak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22.1.e) artikulua urratzen du, instalazioan erabilitako biomasaren sufre-edukia neurtzeko metodologiarik ez baitu jasotzen, ezta neurketak ebaluatzeko prozedurarik ere. Ohartarazi behar da aipatutako 22.1.e) artikulua betebeharrekoa dela, edozein dela ere tratatu beharreko hondakina, eta, beraz, baita instalazioan sartzen diren hondakinen tratamenduari dagokionez ere.

● Errekurritutako ebazpenak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22.3 artikulua urratzen du, instalazioak HEZ 03 01 05 kodeak barnean hartzen dituen hondakinak onar ditzan ahalbidetzen duelako, eta baldintza osagarriak ezartzera behartzen ez duelako. Hondakin horien artean, esaterako, dentsitate ertaineko zuntzezko taulak daude,

zeinen nitrogeno-edukia materia lehorraren gaineko pisuaren % 1aren oso gainetik baitago, eta horrek ebazpenean bertan ezarritako NO_x isurpenaren muga-balioa betetzeko erabil daitezkeen teknika onenak erabiliz lor daitezkeen baldintzak baino baldintza gogorrakoak ezartzera behartzen du. Sustatzaileak NO_x gutxitzeko erabil ditzakeen teknika onenak erabili ditu; teknika horiek, ordea, Europako Batzordearen 2006ko uztailaren BREF Reference Document on Best Available Techniques form Large Combustion Plants dokumentuaren arabera, % 10 eta % 70 bitarteko NO_x isurpen-gutxitze portzentajeak dituzten oinarrizko neurriak dira, eta, beraz, ez dira nahiko instalazioek NO_x isurpenen muga-balioa errespetatzen dutela bermatzeko, HEZ 030115 kodeak barnean hartzen dituen hondakin-mota batzuk erabiltzen baitira lehengai, dentsitate ertaineko zuntzezko taulak, esaterako.

● Errekurritutako ebazpenaren C.3.2.3 idatzi-zatiak ez du betetzen, hondakin-uren isuri-ezaugarriei dagokienez, Errigoitiko Malluki jarduera ekonomikoen sektorearen Plan Partzialeko testu arautzailearen 27. artikuluan ezarritakoa (2008ko irailaren 18ko BAO, 179. zenbakia).

2012ko apirilaren 12an, prozedurako gainerako interesdunei bidali zitzaien errekurtsoa.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazioak berariaz ebatzi behar ditu prozedura guztiak, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legeko zioen azalpeneko 5. puntuko 5. paragrafoan adierazten den bezala.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera administrazioak ebazpena emateko betebeharra duenez, administrazio-isiltasun negatiboa legezko fikzio gisa bakarrik sortzen da, herritarrak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera izan dezan; eta, aipatutako lege beraren arabera, administrazio-isiltasunez ezesten diren kasuetan, epea amaitu ondoren ematen den berariazko ebazpena isiltasunaren zentzuarekiko loturarik gabe hartuko du administrazioak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legeko 22.1.e) artikuluak eskatzen duenaren arabera, ingurumeneko baimen bateratuan honako hauek jaso behar dira: mota guztietako isuriak eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, neurketak egiteko metodologia, neurketen maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak.

Bioforest Bost, S.L.U.k aurkeztutako eskaeran oro har adierazten da instalatuko diren ekipoek bibrazioak igor ditzaketela eta zein sistema dauden igorpen horiek minimizatzeko. Halaber, esaten da bibrazioak igortzen dituzten elementu industrialen intentsitateak eta bibrazio-motak ezagutzen direnean bakarrik zehaztu ahal izango direla kalkulu xeheak egiteko eskatutako datuak.

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuak, soinu-zonifikazioaz, kalitate-helburuez eta soinu-igorpenez, hau xedatzen du 26. artikuluan: industria-jarduerak diren soinu-igorle berriek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte ez igortzeko, inguruko etxebizitza, egoitza, erietxe, ikastetxe edo kultura-etxeen barruko aldera, 16. artikuluari jarraituz bibrazioen kasuan kalitate akustikoaz ezarritako helburuak gainditzen dituzten bibrazioak, betiere IV. eranskinean ezarritako prozeduraren arabera ebaluatuta.

Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan xedatzen dira, 16. artikuluan, barruko aldeari aplikatzekoak diren kalitate akustikoko helburuak, bibrazioen balioak barne.

Arrazoizkoa da espero izatea sustatzaileak ekipo egokiak hautatzean eta bere eskaeran proposatutako neurri zuzentzaileak ezartzean ahalbidetu egingo dela Malluki industrialdearen ondoko etxebizitzen barruko aldeari aplikatzekoak diren kalitate akustikoko helburuak betetzea.

Arestian esandakoa gorabehera, komenigarria da errekurritutako ebazpenean metodo eraginkor bat azaltzea, Ingurumeneko Baimen Bateratua indarrean jartzea erabakitzen den unean baimenean jaso ahal izateko zarata ez ezik bibrazioak kontrolatzeko baldintzak ere betetzen direla, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legeko 22. artikuluan xedatzen den bezala.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legeko 22.1 artikuluaren atal guztiak irakurtzean, ondorioztatu behar da c) eta e) letrak instalazioan sortutako hondakinei bakarrik dagozkiela eta instalazioan erregai gisa erabiliko den biomasari aplikatzeko baldintzak, berriz, aplikatzekoa den araudi sektorialean xedatutakoari egokitu behar zaizkiola, 22.1 artikuluaren g) letran azaltzen den bezala.

Plantan onar daitezkeen egur-hondakinen definizioa errekurritutako ebazpenaren hirugarren ataleko C.2.1 puntu osoan dago jasota eta ez aipatutako HEZ kodean soilik. Atal horretan xedatutakoaren arabera, plantan ezingo dira erregaitzat onartu gai arriskutsuak dituzten taula-hondarrak eta kontserbatzeko tratamendu kimikoak izan dituztenak edo xurgatzailetzat erabili direnak; horrela, ingurumen-kalitatearen baldintzak betetzeko, ez da izango beharrezkoa eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliz lor daitezkeenak baino baldintza zorrotzagoak ezartzea.

Sustatzaileak eskuragarri dauden teknikarik onenak erabili dituela kontuan izanik, errekurritutako ebazpenean erregaitzat biomasa erabiltzen duten instalazioei aplikatzeko araudi sektorialean ezarritakoak baino gehienezko balio zorrotzagoak ezartzen dira NOx-isurietarako; eta errekurtsogileak ez du aurkeztu gehienezko balio horiek gainditu egingo direla ondorioztatzera eramaten duen daturik.

Errigoitiko Malluki jarduera ekonomikoen sektorearen Plan Partzialeko 27. artikuluan ezartzen diren hondakin-urentzako gehienezko balioak errekurritutako ebazpenean jasotakoak baino zorrotzagoak dira. Plan hori Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailaren urtarrilaren 15eko 91/2007 Foru Aginduaren bidez onartu zen behin betiko.

Goian esandakoa gorabehera, Malluki industrialdean eta antolamendu xehatuan onartuta dauden erabileren inguruan hirigintza-araudia aldatzeko izapidea egiten ari dira, eta ondorioz, emango den Ingurumeneko Baimen Bateratuan jasoko diren isurietarako gehienezko balioak kutsadura ekiditeko eraginkorrenak direnak izango dira. Kontuan izango dira, besteak beste, baimen hori ematen den egunean indarrean dagoen araudian finkatutako isurien gehienezko balioak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62. eta 63. artikuluko inguruabarrak ez dira gertatzen, administrazio-ekintzen deuseztasunari eta deuseztagarritasunari dagokionez.

Organo honek gora jotzeko errekurtsoa ebazteko eskumena du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Ikusirik Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Bateratuaren uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari

buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua, eta aplikazioko gainerako arauak,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Zati batean baiestea Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko abenduaren 16ko Ebazpenaren aurka Ivon Lecue Oleagordiak jarritako gorako errekurtsoa. Ebazpen horren bidez, ingurumen-inpaktuko adierazpena egin eta ingurumen-baimen integratua eman zitzaion basoko biomasaren errekuntzaren bidez energia elektrikoa sortzeko Bioforest Bost, S.L.U. sozietateak Errigoitin sustatu duen proiektuari. Horrenbestez, ingurumen-baimen integratuaren hirugarren paragrafoko C.3.2.3 eta D.3 idatzi-zatiak eta laugarren paragrafoa aldatzen dira, zein honela idatzita geratzen baitira:

«C.3.2.3.– Isurpenen muga-balioak.

Mallukiko industrialdeko antolamendu xehatuan jasota egon daitekeen Udalaren ingurumen-arauen aplikazioa alde batera utzi gabe, isurpenak eragiten dituen jardueraren parametro ezaugarriak ondoren jasotzen direnak bakarrik dira, parametro horietako bakoitzarentzako zehazten diren isurpen muga-balioak aintzat hartuta.

1. isuria: ur oliotsuak.

pH tartea:	5,5 eta 9,5 bitartean
Solidoak airean:	< 40 mg/l
Olioak eta koipeak:	< 20 mg/l
DQO:	< 160 mg/l
Hidrokarburoak, guztira:	< 5 mg/l

2. isuria: galdara-purgak, osmosi-ukoak eta aire-kondentsazioko sistemaren purgak.

pH tartea:	5,5 eta 9,5 bitartean
DQO:	< 160 mg/l
Solidoak airean:	< 40 mg/l
Kloruroak:	< 500 mg/l
Burdina:	< 1 mg/l
Kobrea:	< 0,1 mg/l
Nitrogeno nitrikoa:	< 5 mg/l
Tenperatura:	< 3 ºC

Ezin izango da diluzio-teknikarik erabili isurpenaren muga-balioetara iristeko.

Gainera, ingurune hartzailearen kalitate-arauak bete behar dira. Hala egin ezean, titularrak tratamendu egokia instalatu beharko du isuriak kalitate-helburu horiek urratu ez ditzan.

Baimen horrek ez du aukerarik ematen xedapen honetan berariaz adierazten ez diren substantziak isurtzeko, eta, bereziki, substantzia arriskutsuak (maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarria).

Ezingo da isuririk egin terrazetako irtenguneetan, deposituetan eta antzeko lekuetan, ezkutuko purgak bailirateke. Halakorik bada, deklaratu egin behar dira eta baimen hau aldatzeko eskatu behar da.»

«D.3. Zarataren eta bibrazioen kontrola.

a) Jarduera egiten den lursailaren kanpoaldean neurketak eginez, Lkeq, Ti indize akustikoaren ebaluazioa egingo da hiru hilabetean behin, zarata kanpoaldera transmititzeko arriskurik handiena dagoen aldean. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera, aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez erabakiko da.

b) Bibrazioen Law indizea behin bakarrik ebaluatuko da instalazioa jardunean dagoen lehen urtean, edo, hala dagokionean, abian jartzeko aldian. Lortzen diren emaitzen arabera, ondorengoetarako aldizkako kontrol-sistema bat ezarri ahal izango da.

c) Neurketa bidezko ebaluazioak entsegu-laborategiek egin beharko dituzte, ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko laborategiek, hain zuzen ere. Dena dela, ingurumen-organoak zainduko du ebaluazioak egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela.

d) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

e) Sustatzaileak neurketen proposamen zehatza egin beharko du, eta proposamen horren barruan ebaluazio-metodoak modu xehatuan adierazi beharko ditu, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren IV. eranskinean zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta isuri akustikoei dagokienez ezarritako prozedurei jarraituz. Proposamena ebazpen honen D.7 idatzi-zatian aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginean sartuko da.

«Laugarrena.– Ebazpen honek eragina izateko, aldez aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako hirugarren idatzi-zatiko honako puntu hauetan xedatutako baldintzak betetzen direla:

C.1.14.– Obraren amaierako txostena.

C.2.2.– Instalazioan kudeatutako hondakinei buruzko artxibo-eredua.

C.3.3.i.– Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuei eta ez arriskutsuei buruzko artxibo-eredua.

C.3.3.1.f eta C.3.3.2.e.– Instalazioan sortutako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak.

D.1.e.– 1. fokua etengabe monitorizatzea, kalibratze-protokoloarekin batera.

D.1.g.– Atmosferara egindako isurketak erregistratzeko eredua.

D.3.e.– Zarata eta bibrazioak kontrolatzeko proposamena.

D.4.– Aire-kalitatea neurtzeko kanpainen emaitzak.

D.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

E.1.– Martxan jartzeko eta geldiarazteko eragiketetako emisio eta hondakinen zenbatespena, eta kudeaketa- eta tratamendu-proposamena.

E.3.b.– Biltegiratzeko instalazioen egiaztapena.

E.3.c.– Prebentzioko mantentze-lanei buruzko eskuliburua.

E.3.d.– Mantentze-eragiketak eta gertakariak erregistratzeko eredua.

E.3.e.– Kubetak husteko protokoloa.

E.3.g.– Gertakarien aurrean jarduteko protokoloa.

E.3.j.– Suteen aurkako babes-araudia betetzen dela egiaztatzea.

Era berean, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, ikuskapen-bisita hori egin aurretik, sustatzaileak «as built» proiektua eta teknikari eskudunak alderdi horiek bete direla adieraziz emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 30 hilabeteko epea ezarri da, Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori luzatu egin ahal izango da, behar bezala arrazoituz gero eta sustatzaileak aldez aurretik eskatuz gero.

Instalazioa ezingo da abiarazi ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela adierazi arte. Nolanahi ere, abiarazteko probaldi bat eman ahal izango da, gehienez ere bost hilabeterako, eta, bertan, neurri zuzentzaileak eraginkorrak direla egiaztatu ahal izango da, eta etengabeko neurketa-sistemen lehen kalibratzea egin. Epe horretan, ebazpen honetako D1 eta D3 ataletan ezarritako neurketak egingo dira, eta emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari igorriko zaizkio lehen aipatutako ikuskapen-bisita horren aurretik. D.3 (zarata eta bibrazioak) idatzi-zatiari dagozkion ebaluazioen aurretik, espero diren emisioen modelizazioa (Lk,d, Lk,e eta Lk,n indize akustikoak) eta balioztapen justifikatua (Law bibrazio-indizea) egingo dira, zarata- eta bibrazio-fokuen emisio-datu errealetan oinarrituta.»

Bigarrena.– Ebazpen honen edukia Ivon Lecue Oleagordiari, Bioforest Bost, S.L.U.ri, Errigoitiko udalari, ingurumen-arloko baimen integratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei jakinaraztea.

Hirugarrena.– Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz, administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salari zuzenduta; ebazpen hau jakinarazten den biharamunean hasi eta bi hilabetekoa izango da horretarako epea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 6a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.